

IRAUNKORTASUN POLITIKA

MONDRAGON ASSEMBLY KOOP. E.ko zuzendaritzak bere Iraunkortasun Politika ezarri du, enpresaren asmoak eta jarraibideak ezartzeko eta enpresaren estrategiari eta iraunkortasunari dagokienez, betetzen dela **ziurtatzeko**.

1.- ESTRATEGIA OROKORRARI DAGOKIONEZ:

- MONDRAGON ASSEMBLYk bezeroarekin elkarlan estuan egiten du lan, haren asebetetzea lortzeko benetako beharrekiko konpromisoa, eta gertutasuna eta identifikazioa bilatu nahian.
- MONDRAGON ASSEMBLY pertsonetan eta talde lanean oinarritutako erakundea da.
- MONDRAGON ASSEMBLYk berrikuntzaren eta garapenaren aldeko apustua egiten du I+G+B arloko proiektuak eta etengabeko hobekuntza sustatuta, etorkizuneko lehiakortasuna bermatzeko eta bezeroei eta gizarteari balio erantsia modu iraunkorrean emateko bidea den heinean.
- MONDRAGON ASSEMBLYk agintzen du kalitatearen, laneko segurtasun eta osasunaren, ingurumenaren, erantzukizun sozial korporatiboaren eta "compliance" penalaren gestioa eta I+G+Baren enpresaren jardura guztietan eta erakundeko maila guztietan **barneratuko dituela**, erantzukizunak zehaztuz, eta baliabideak eta prestakuntza egokia eskainiz horiek gauzatu ahal izateko, arrakastaz beteko direla bermatuta.
- MONDRAGON ASSEMBLYk maila guztietako erabakietan txertatzen du Garapen Iraunkorra.
- MONDRAGON ASSEMBLYk nazioarteko bokazioa du eta mundura eta beste kultura batzuetara irekita dago, beti haien berezitasunak errespetatuta.
- MONDRAGON ASSEMBLYk lehentasunezko interes-taldeekin **komunikazio kanalak sortu** ditu, zer pentsatzen duten, zer eskatzen duten eta nola baloratzen gaituzten jakiteko.
- MONDRAGON ASSEMBLYk alderdi interesdun guztien ideiak, itxaropenak eta interesak **errespetatzen ditu**. Interes-talde horiei dagokienez, gaien garrantzia identifikatu eta ebaluatzen du, ekintzak planifikatzen ditu eta emaitzak ebaluatzen ditu, haiekiko etengabeko atzeraelkaduraren bidez.

2.- M.A.-KO PERTSONEI DAGOKIENEZ:

- MONDRAGON ASSEMBLYk modu prebentiboan egiten du lan langile guztien osasuna, segurtasuna eta ongizatea bermatzen, laneko sistema eta instalazio seguruen bidez eta ikuskapenak eta arriskuen ebaluazioak modu programatuan eginez, bai eta egoerak gomendatzen duen guztietan ere, arrisku bideak ezabatzeko eta arriskuak murrizteko, laneko segurtasunaren eta osasunaren alorreko jardura ziurtatzeko eta etengabe hobetzeko konpromiso sendoarekin, ekintzak eta helburuak definituz eta planifikatuz.
- MONDRAGON ASSEMBLYk bere langileen eta kolaboratzaileen osasuna eta ongizatea zaintzen du modu aktiboan, haien kontsulta eta partaidetza ziurtatuz eta haiekin argi eta oztoporik gabe komunikatuz.
- MONDRAGON ASSEMBLYk bere azken produktuaren erabiltzaileen osasuna eta segurtasuna zaintzen eta prebentzioz lantzen ditu, operazio-kontrolen eta kalitate-auditoretzen bidez, makinaren segurtasunari buruz indarrean dauden estandarretan eta arauetan oinarrituta.

3.- ERANTZUKIZUN SOZIALARI DAGOKIONEZ:

- MONDRAGON ASSEMBLYk mundu mailan onartutako eta "The Global Compact" itunean jasotako **10 printzipioak betetzeko konpromisoa hartzen du**:
 - Enpresek onartutako giza eskubideen babesa bultzatu eta errespetatu behar dute nazioartean eta haien eragin esparruaren baitan.
 - Enpresek giza eskubideen abusuak konplize ez direla bermatu behar dute.
 - Elkartzeko askatasuna eta negoziazio kolektiborako eskubidearen aitortpen eragingarria errespetatu behar dute enpresek.
 - Enpresek bortxazkoak edo derrigorrezkoak diren lan mota guztiak desagerrarazi behar dituzte.
 - Enpresek haurren lana modu eragingarrian deuseztatu behar dute.
 - Enpresek enpleguarekin eta okupazioarekin lotura duen diskriminazioa desagerrarazi behar dute.
 - Enpresek ingurumeneko arazoekin lotura duten prebentzio metodoak babestu behar dituzte.
 - Enpresek ingurumeneko erantzukizun handiagoa bultzatzeko ekimenak bideratu behar dituzte.
 - Enpresek ingurumenerako kaltegarriak ez diren teknologien garapena eta hedapena bultzatu behar dute.
 - Enpresek ustelkeria era guztien aurka egin behar dute lan, baita estortsioaren eta eroskeriaren aurka ere.
 - Enpresek ustelkeria era guztien aurka egin behar dute lan, baita estortsioaren eta eroskeriaren aurka ere.
- MONDRAGON ASSEMBLYk ingurunearekiko eta gizartearekiko konpromisoa hartzen du bere gain, inbertsio sozialeko ekimenak garatuz. **MONDRAGON ASSEMBLYn** goi zuzendaritzak **kontuak ematen ditu**.
- MONDRAGON ASSEMBLYk konpromisoa hartu du bere langileei soldata duina zabaltzea, oinarritzko beharrezkoak asetzeko behar den diru-sarrera ziurtatzeko.
- MONDRAGON ASSEMBLYk gardentasunarekin konprometituta dago, eta aldian-aldian erakundearen jardueraren berri ematen zaie lehentasunezko interes taldeei.
- Aurreko puntuetan aipatutako Erantzukizun Sozialeko ideia orokorrekiko konpromisoaren erakusgarri gisa, MONDRAGON ASSEMBLYk **Jokabide Kode** bat eta Taldea osatzen duten pertsona guztiek **bete beharreko portaera gida** gisako politika batzuk ditu.

4.- INGURUMENARI ETA KLIMA ALDAKETARI DAGOKIONEZ:

- MONDRAGON ASSEMBLYk nazio batuen garapen iraunkorreko helburu eta xedeekin konpromisoa hartzen du, erakundearen garatutako hainbat ekintzen bidez, eta helburu horiek erakundearen jardura osoan txertatzeko ahalegina eginez.
- MONDRAGON ASSEMBLYk ingurumenarekiko konpromisoa hartzen du urtero karbono-arrastoaren neurketa egokiak eginez bere irismen guztietan.
- 2025erako, MONDRAGON ASSEMBLYk bere karbono-aztarna murrizteko **ibilbide-orria izango du**.
- Emisioak murrizteko helburuarekin, MONDRAGON ASSEMBLYk konpromisoa hartu du **2. irismeneko emisioak ZEROa murrizteko**. Kontsumo elektrikoa %100a berriztagarria izanez (bai erosketa bidez, bai autokudeaketa bidez).
- 2030erako ezarritako helburuarekin, MONDRAGON ASSEMBLYk **1. eta 2. irismenetan %100 neutrala izateko konpromisoa hartu du**, irismen hauen emisioen %42a murriztuz eta 3. irismeneko %25a murriztuz.
- 2050erako, MONDRAGON ASSEMBLYk bere irismen guztietan **%100 neutrala izango denaren konpromisoa hartu du**.
- Gainera, prozesu osoan zehar, MONDRAGON ASSEMBLYk sortutako hondakinak murrizteko neurriak hartuko ditu, %100 berrerabilgarriak edota birziklagarriak izatea lortuz.
- MONDRAGON ASSEMBLYk ingurumena errespetatzeko konpromisoa hartzen du bere gain, kaltegarriak ez diren produktuak erabilia eta ingurumenarekiko inpaktuari eta kutsadurari aurrea hartuta, hondakin gutxiago sortuz eta baliabide gutxiago kontsumituz.

5.- ARRISKU PENALAK BETETZEARI ETA PREBENITZEARI DAGOKIONEZ ("compliance" penala):

- MONDRAGON ASSEMBLYk konpromisoa hartzen du laneko segurtasunari eta osasunari, ingurumenari, produktuaren eta zerbitzuaren kalitateari, konplimendu penalari, giza eskubideei eta genero-berdintasunari buruzko **lege-baldintzak betetzen direla** ziurtatzeko, baita zehazten dituen beste baldintza batzuk ere.
- Delituak egitea debekatuta dago** MONDRAGON ASSEMBLYn; debeku honek muntaia automatikorako ekoizpen sistemak diseinatzeko eta ekoizteko jardueretan erakundeak identifikatutako arrisku penalak arintzeko beharrezkoak diren kontrol finantzarioak eta ez-finantzarioak kudeatzeko jardura guztiak hartzen ditu bere baitan.
- MONDRAGON ASSEMBLYko kide guztiek erakundearen aplikagarria den zigor arloko legeria bete behar dute.
- MONDRAGON ASSEMBLYn ezin da inor behartu delitua egitera edo ezin da inor zigortu edo jazarri delitu bat egiteari uko egiteagatik.
- MONDRAGON ASSEMBLYko kideek zigor arriskuekin lotura duten gertaera eta jokabide susmagarrien inguruko informazioa emateko betebeharra dute. Horri lotuta, haien isilpekotasuna mantentzeko bermea dago.
- MONDRAGON ASSEMBLYk arrisku penalen ebaluazioa eginda dauka (eta, aldizka eta beharrezkoa den guztietan berrikusi egiten du). Betetzen duen jardura aintzat hartuta, horiek gertatzea edo gertatzeko probabilitatea ahalik eta gehien gutxitzea xede duten beharrezko ekintzak bideratzea da horren helburua.
- "Compliance" penalarekin lotura duen guztia (prozesuak, prozedurak, gainbegiratzea, berrikuspenak, ebaluazioak, txostenak...) **"Compliance" Organoak** gestionatuko du. Kontseilu Errektoreak (gobernu organoa) "compliance" penalaren gestio sistema etengabe bereganatzeko, ezartzeko, mantentzeko eta hobetzeko konpromisoa hartzen du bere gain, Mondragon Assemblyn "compliance"-ko kultura egokia bultzatuta. **Kontseilu Errektoreak** (gobernu organoa) agintarritza eta independentzia ematen dizkio **"Compliance Organoari"** bere funtzioak bete ditzan.
- Erakundearen eragina duten zigor alorreko legeetan eta arau osagarrietan jasotakoa zein "compliance" penalaren politika horretatik eta haren euskarri den sistematik eratorritako eskakizunak ez betetzeak zigorrek ekar ditzake berekin, ez betetze hori frogatzen bada. Hori guztia **Kooperatibaren Barne Araudian** aurrez ikusitako moduan egingo da.
- MONDRAGON ASSEMBLYk legeria, aplikagarria den araudia eta erakundeak onartutako beste eskakizun batzuk betetzeko konpromisoa hartzen du bere gain, honako gai hauei lotuta: kalitatea, laneko segurtasuna eta osasuna, erantzukizun sozial korporatiboa, ingurumena, "compliance" penala eta I+G+B.
- MONDRAGON ASSEMBLYk Gestio Sistema Integratu hau (GSI) **etengabe hobetzeko** lan egiten du beti, eta aldizka auditoretzak egiten ditu horretarako, bere prozesu eta eremu guztietan.

IRAUNKORTASUN POLITIKA

MONDRAGON ASSEMBLYko Zuzendaritzak Politika hau izango du kontuan jarduera eta erabaki guztietan, baliabideak eta informazioa esleitzeko eta ziurtatzeko garaian, laneko prozesu eta sistemen funtzionamendua eta diseinua zehaztean, teknologia berriak erabiltzen hastean, instalazio eta ekipamenduak erostean, eta produktu eta zerbitzuak diseinatzen eta hornitzean, besteak beste. Urtero, bete beharreko helburuak zehazteko garaian, kontuan izaten da Gestio Politikan ezarritakoa, eta Zuzendaritzak sistema berrikusten duenean, Gestio Politikan aldaketak egiteko beharrik dagoen kontuan hartzen da. Politika kolektibo osoari jakinarazten zaio, eta langile berrien harrera planetan txertatuta dago. Gainera, interesdunentzat eskuragarri dago.

Aretxabaleta, 2024ko Otsailaren 1an



Firma Mikel Gantxegi Gantxegi
DIRECTOR GENERAL